

KIMU BERRI erakusketa

2013/09/25

Erakusketa honetan, Mondragon Unibertsitateko gradu eta masterreko ikasleek garatutako 35 proiektu aurkeztu dira panel edo maketa formatuan.

Hortaz gain, aurten, Aretxabaletan eskaintzen den Ikus-Entzunezko Gradu ikasleek egindako bideoklip eta iragarkiak ikusteko aukera ere egon da.

Erakusketaren inaugurazioan, Mondragon Unibertsitateko ikasle kopuru handi bat egoteaz gain, Kimu Berriko ordezkariak eta Arrasateko alkatea ere egon ziren.

KIMU BERRIren helburua, gazteriaren artean ekintzaitasuna bultzatea da eta horretarako, gazte soziologiari dagozkion gai eta teknologiak erabiltzen ditu. Oraingoan landu den gaia, "Smart Cities" izan da.

